# CONSEIL MUNCIPAL DU 27 FEVRIER 2017

# 2017ko OTSAILAREN 27ko HERRIKO KONTSEILUA

**<u>Présents / Hor zirenak : 9</u>**

MMES. DUHALDE-ETCHART, ECHEVERTZ, GARY, OXARANGO.

MM. GASTAMBIDE, BARNECHE, BISCAY, HERNANDEZ, SOULIGNAC.

**<u>Absents excuses / Ezin etorria jakinarazia zutenak : 4</u>**

MMES. BARBIER, ETCHEVERRY

MM. ETCHEGARAY, ETCHEBERRY

1 - **Approbation comptes de gestion et comptes administratifs 2016**

Les comptes de gestion de la Commune et des différents services (régie de transport scolaire, domaine funéraire) établis par le Trésorier Municipal, conformes aux comptes administratifs présentés par la Commune, ont été adoptés à l'unanimité.

Le Conseil a ensuite adopté à l'unanimité les comptes administratifs présentés par le Maire. Pour le compte de la Commune, les dépenses d'équipement se sont élevées à 224 453.96 €, avec principalement les travaux de réfection de la voirie, pour 118 000 €, la rénovation de la place-fronton d'Apairi pour 50 497.51 €, la réhabilitation de l'ancienne carrière du bourg pour 12 600.00 €.

1 - **2016ko kudeantza kontuen eta kontu administratiboen onartzea**

Herriko eta zerbitzu desberdinetako (eskolako garraioaren zerbitzua, hilerriak) kudeantza kontuak, Herriko Diruzainak finkaturik, Herriak aurkeztu kontu administratiboen araberakoak, aho batez onartuak izan dira.

Gero, Kontseiluak aho batez onartu ditu Auzapezak aurkeztu kontu administratiboak. Herriaren kontu, ekipamendu gastuak 224 453.96 €-koak izan dira, gehien bat bideen berritzeko, 118 000 €, Apairiko pilota plazaren berritzeko, 50 497.51 €, herri barneko lehengo harrobiaren berritzeko, 12 600.00 €.

2 - **Autorisation de mandatement des dépenses d'investissement avant l'adoption du budget 2017**

Après le départ de la locataire de l'appartement de l'école publique et avant de le remettre en location, il s'avère que des travaux de rénovation sont nécessaires : réfection de la salle de bains : remplacement de la baignoire par une douche, du lavabo, du WC, reprise des murs avec doublage, du sol, du carrelage et isolation d'une chambre – les deux murs extérieurs-, remplacement de la hotte aspirante. La dépense a été estimée à près de 15 000 €.

Vu que le budget n'a pas encore été voté et afin de pouvoir régler ces travaux, le Conseil Municipal conformément à l'article L. 1612-1 du Code Général des Collectivités Territoriales, a autorisé le Maire à mandater ces dépenses d'investissement pour un montant de 15 000 € pour la rénovation du logement de l'école.

2 - **Inbestizamendu gastuak mandatuz ordaintzeko baimena, 2017ko buxeta onartu baino lehen**

Eskola publikoko apartamentuko alokatzailea joan ondotik eta alokatzea berriz proposatu baino lehen, obra batzuk egin behar dira: bainugelaren berritzea: bainuontzia dutxa batez ordezkatzea, garbiontziaren eta komunen aldatzea, murruen doblatzea, zoruaren eta lauzaduraren berriz hartzea, ganbara baten isolamendua – kanpoko bi murruak-, erauzgailuaren ordezkatzea. Gastua 15 000 €-ren inguruan estimatua izan da.

Ikusirik buxeta ez dela oraino bozkatua izan eta obra horiek ordaindu ahal izateko gisan, Herriko Kontseiluak Lekuko Elkargoen Kode Orokorreko L. 1612-1 artikuluari jarraikiz, Auzapezari 15 000 €-ko inbestizamendu gastuak mandatuz ordaintzeko baimena eman dio, eskolako bizitegiaren berritzeko.

**3 - Sécurisation en souterrain du poste bourg**

Ces travaux estimés à 73 290.04 € sont pris intégralement par le SDEPA ; seuls les frais de gestion (5 % du montant HT des travaux), soit 2 764.77 €, restent à la charge de la Commune. Lié à ces travaux de sécurisation, la Commune procéderait à la mise en souterrain de l'éclairage public et des lignes France Telecom au niveau du parking de l'église et de ses abords.

Eclairage public :

Le montant des travaux, de la maîtrise d'œuvre et des frais de gestion s'élèvent à 10 629.78 €. Participation du SDEPA et FCTVA déduits, il resterait à la charge de la Commune : 6 389.25 € à financer sur fonds propres. Le Conseil a décidé de procéder aux travaux et a approuvé le montant des dépenses à réaliser.

Génie civil France Telecom :

Le montant des travaux, de la maîtrise d'œuvre et des frais de gestion s'élève à 12 956.24 €. Le Conseil a décidé de procéder à ces travaux et a approuvé leur financement sur ses fonds propres.

Il est à noter que cette zone concernée par les travaux a fait l'objet d'une étude de faisabilité sur le réaménagement du parking de l'église avec matérialisation de l'assiette de la voie communale, des places de parking et création des accès aux différentes propriétés.

**4 - Extension BT (Basse Tension) propriétés GALLIER et BENAC**

Le montant des travaux, de la maîtrise d'œuvre et des frais de gestion s'élèvent à 13 103.79 €. Participation du SDEPA et FCTVA déduits, il resterait à la charge de la Commune 2 583.37 € à financer sur fonds propres. Le Conseil a décidé de procéder à l'extension électrique pour alimenter les propriétés GALLIER et BENAC, a approuvé le montant des dépenses à réaliser et leur financement.

**3 - Herri barneko postuaren lurperatzea, segurtasunean ezartzeko xedez**

Obra horiek 73 290.04 €-tan estimatuak dira. Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuak osoki beregain hartzen ditu; kudeantza gastuak (obren zergarik gabeko zenbatekoaren % 5) bakarrik dira Herriaren gain gelditzen, hots 2 764.77 €. Segurtasunean ezartzeko obra horiei loturik, Herriak argi publikoen eta France Telecom-en harien sareak lurpean ezarriko lituzke, elizaren aparkalekuaren heinean eta haren inguruan.

Argi publikoak:

Obrak, obralaritza eta kudeantza gastuak 10 629.78 €-tara heldu dira. Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Konpentsatzeko Funtsaren parte hartzea kendurik, 6 389.25 € geldituko lirateke Herriaren gain, bere funtsetatik diruztatzeko. Kontseiluak erabaki du obrak egitea eta egin beharreko gastuen zenbatekoa onartu du.

France Telecom-en ingeniaritza zibila:

Obrak, obralaritza eta kudeantza gastuak 12 956.24 €-tara heldu dira. Kontseiluak erabaki du obra horiek egitea eta bere funtsetatik diruztatzea.

Aipatzekoa da, obrek hunki behar duten eremu horretan, egingarritasun ikerketa egin dela, elizaren aparkalekuaren berrantolaketaren aztertzeko. Berrantolaketa horren karietara, herriko bidearen lekua eta aparkalekuko tokiak markatuko dira eta funts desberdinetako sartzeak eginen dira.

**4 - Tentsio Apaleko sarearen hedatzea: GALLIER eta BENAC funtsak**

Obrak, obralaritza eta kudeantza gastuak 13 103.79 €-tara heldu dira. Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Konpentsatzeko Funtsaren parte hartzea kendurik, 2 583.37 € geldituko lirateke Herriaren gain, bere funtsetatik diruztatzeko. Kontseiluak erabaki du Tentsio Apaleko sarearen hedatzea, GALLIER eta BENAC funtsetara helarazteko gisan, eta egin beharreko gastuen zenbatekoa eta haien diruztatzeko moldea onartu ditu.

**5 - Travaux de voirie 2017/2020**

Le marché de travaux de voirie à bons de commande passé avec l'entreprise DUBOS, de 2013 à 2016 est arrivé à expiration. Un nouveau marché doit donc être établi pour 2017/2020. Après consultation des différentes communes de La Communauté, pour savoir si elles seraient intéressées pour se grouper afin obtenir des prix plus compétitifs et ainsi réaliser des économies, seule la Commune de BRISCOUS a répondu favorablement. Une convention constitutive du groupement de commandes, qui précise notamment ses modalités de fonctionnement sera mise en place. Il est à souligner :

- que le coordonnateur du groupement serait la Commune de BRISCOUS.
- Que l'accord-cadre à bons de commande individuel serait signé par chaque membre, qui exécuterait lui-même son propre marché public.
- Qu'un tel groupement nécessite que l'attributaire du marché soit choisi par une Commission d'appel d'offres (C.A.O.), qui doit être spécialement élue pour ce dossier.

Le Conseil Municipal a approuvé la convention constitutive du groupement de commandes projetée entre les Communes de BRISCOUS et d'AYHERRE, pour le choix d'un prestataire chargé de réaliser les travaux de voirie 2017-2020 et a élu les représentants de la Commune à la Commission d'appel d'offres du groupement de commandes ci-après :

Représentant titulaire : M. HERNANDEZ

Représentant suppléant : Mme OXARANGO

**5 - Bideetako obrak: 2017/2020**

2013tik 2016ra DUBOS enpresarekin hitzartu bideetako obren merkatua, eskaera orri bidezkoa, bururatu da. Beraz, 2017/2020 epearentzat merkatu berri bat finkatu behar da. Elkargoko herri desberdinak kontsultatu dira, jakiteko elkartzeko interesik baluketenetz, horri esker prezio hobeak ukaiteko eta ekonomiak egiteko gisan. Baietz erantzun duen bakarra BESKOITZEko Herria izan da. Eskaera elkartearen sortzeko hitzarmena plantan ezarriko da. Besteak beste, funtzionatzeko moldeak zehaztuko ditu. Azpimarratzekoa da:

- Elkartearen koordinatzailea BESKOITZEko Herria litzatekeela.
- Kide bakoitzak eskaera orri bidezko hitzarmen oinarri-emailea izenpetuko lukeela, eta bakoitzak bere merkatu publikoa gauzatuko lukeela.
- Horrelako elkarte baten egiteko, dosier horrentzat bereziki hautatua den eskaintza deialdien batzorde batek merkatua eskuratzen duen enpresa hautatu behar duela.

Herriko Kontseiluak BESKOITZEko eta AIHERRAko Herrien artean pentsatua den eskaera elkartearen sortzeko hitzarmena onartu du, eskaera elkarte horren xedea 2017-2020 epeko bideetako obren egitea izanik, eta eskaera elkarteko eskaintza deialdien batzordean Herriaren ordezkatzeko, ondoko pertsonak hautatu ditu:

Ordezkari tituluduna: HERNANDEZ jauna

Ordezkoa: OXARANGO anderea

**6 - Lotissement du bourg : rétrocession à la Commune des équipements et espaces communs**

Dans le cadre de la création du lotissement communal « Elixaldia », la Commune cèdera environ 13 000 m² sur les parcelles B1055, B 1429 à l'Office64 de l'Habitat.

Pour ce qui est du sort de la voirie, des équipements spécifiques et des espaces verts créés lors de la création du lotissement, l' Office 64 conventionnera avec la commune pour la rétrocession des voiries, des équipements et espaces communs dans le domaine public, une fois les travaux finalisés .

**6 - Herri barneko lotizamendua: muntadura eta eremu komunak Herriari itzultzea**

Herriko «Elixaldia» lotizamenduaren sortzearen karietara, Herriak nonbait han 13 000 m² utziko dizkio *Office64 de l'Habitat* egiturari. Eremu hori B1055 eta B 1429 lursailetan da.

Bideen, muntadura berezien eta berdeguneen geroari buruz, *Office 64* egiturak hitzarmen bat adostuko du Herriarekin, eremu publikoan diren bideak, muntadura bereziak eta berdeguneak itzultzeko, obrak bukatu ondoan.

Le projet prévoit les équipements communs désignés ci-après :

- une voirie interne avec un cheminement piétonnier et des espaces verts,
- les réseaux divers suivants : eau potable, eaux usées, eaux pluviales et son bassin de rétention, basse tension, réseau téléphonique, éclairage public.

Rappelons qu'une partie des équipements nécessaire à la rétention des eaux pluviales du lotissement sera réalisée par l'Offfice64 sur la parcelle B1429 qui restera propriété de la Commune.

La commune est disposée à accueillir ces équipements dans son domaine public sous réserve de contrôle de la qualité des ouvrages en cours et à l'issue des travaux tels que convenu dans le cadre d'une convention avec l'Office64 de l'Habitat.

Le Conseil Municipal a accepté la rétrocession des équipements du lotissement Elixaldia à la Commune à l'issue des travaux, la signature de la convention correspondante entre l'Office64 de l'Habitat et la commune et a autorisé M. le Maire à la signer.

**7 - Projet aménagement forêt communale**

Le projet d'aménagement de la forêt communale pour une période de 21 ans allant de 2016 à 2036, a été établi par l'Office National des Forêts.
Les grandes lignes du projet sont :

- un ensemble d'analyses sur la forêt et son environnement,
- la définition des objectifs assignés à cette forêt,
- un programme d'actions nécessaires ou souhaitables sur le moyen terme.

Le Conseil Municipal a émis un avis favorable sur le projet d'aménagement proposé.

**8 - Désignation des membres de la CLET (Commission Locale des Charges Transférées)**

Suite à la création de la CLET, commission chargée de l'évaluation du montant des charges et des recettes financières transférées à la Communauté d'Agglomération, le Conseil Municipal a désigné en tant que représentants de la Commune au sein du CLECT :

- Frédéric HERNANDEZ, représentant titulaire,
- Samuel BISCAY, représentant suppléant.

Proiektuak muntadura komun batzuen eraikitzeko asmoa finkatzen du. Hona zein diren:

- barneko bide bat, oinezko bide batekin eta berdeguneekin,
- ondoko sare desberdinak: ur edangarria, ur zikinak, euri urak eta haien atxikitzeko urtegia, tentsio apala, telefono sarea, argi publikoa.

Oroitaraz dezagun *Office 64* egiturak euri uren atxikitzeko muntaduren parte bat eginen duela, B1429 lursailean. Lursail hori herriaren jabegoan gelditukoda.

Herria bere eremu publikoan muntadura horien errezibitzeko prest da, obren kalitatea kontrolatuz geroz, eginen diren denboran, bai eta egin ondotik, *Office64 de l'Habitat* egiturarekin egin hitzarmen batean adostuari jarraikiz.

Herriko Kontseiluak onartu du obren bukaeran Elixaldia lotizamenduko muntadurak eta berdeguneak Herriari itzultzea, doakion hitzarmena *Office64 de l'Habitat* egiturarekin izenpetzea, eta jaun Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko baimena eman dio.

**7 - Herriko oihanaren antolatzeko proiektua**

*Office National des Forêts* egiturak Herriko oihanaren antolatzeko proiektua finkatu du. Proiektu hau 21 urteko epekoa da: 2016tik 2036ra iraunen du.
Hauek dira proiektu horren lerro nagusiak:

- oihanari eta haren ingurumenari buruzko ikerketa multzo bat,
- oihan horrentzat finkatu helburuen zehaztea,
- epe ertainean beharrezkoak edo desiragarriak diren ekintzen programa bat.

Herriko Kontseilua proposatu oihanaren antolatzeko proiektuaren alde agertu da.

**8 - Gastu transferituen lekuko batzordeko kideen hautatzea**

Euskal Elkargoari transferitu gastuak eta sartzeak estimatzeko eginkizuna duen gastu transferituen lekuko batzordearen sortzearen ondorioz, Herriko Kontseiluak gastu transferituen estimatzeko lekuko batzordeko ordezkariak hautatu ditu:

- Frédéric HERNANDEZ, ordezkari tituludun gisa,
- Samuel BISCAY, ordezko gisa.

**9 - Prise de la compétence par la Communauté d'Agglo Pays Basque en faveur de la politique linguistique en faveur de la langue et de la culture basque**

Suite à la dissolution du syndicat intercommunal de soutien à la culture basque, la Communauté d'agglo viendrait se substituer au syndicat en prenant la compétence « politique linguistique en faveur de la langue et de la culture basque ». La communauté d'agglo a approuvé cette prise de compétence et chaque commune membre a été appelée à son tour à émettre son avis sur la question. Le Conseil Municipal a émis un avis favorable à la prise de compétences « politique linguistique en faveur de la langue basque et culture basque » par la Communauté d'agglomération Pays Basque.

**10 - Questions diverses**

**Prestation archives**

Il est rappelé que le Centre de Gestion de la Fonction Publique Territoriale des Pyrénées-Atlantiques propose une prestation Archives à l'ensemble des collectivités des Pyrénées-Atlantiques.

Trois types de prestations sont proposées : le classement intégral des archives de la collectivité (mission 1) ; la formation du personnel et le suivi du classement des archives (mission 2) ; des éliminations de masse et un récolement sommaire des archives (mission 3).

Considérant l'intérêt que représente l'adhésion à cette prestation, le Conseil Municipal a décidé d'adhérer à compter du 1er avril 2017 à la prestation Archives du Pôle Missions temporaires du Centre de Gestion de la Fonction Publique Territoriale des Pyrénées-Atlantiques et a autorisé le Maire à signer la convention.

**Nouvelle zone d'activités près de Mugan**

Une demande de modification du règlement du PLU s'avère nécessaire pour modifier l'article 7 de la zone UY. En effet, le règlement prévoit que les constructions doivent être implantées en retrait d'au moins 3 mètres par rapport aux limites séparatives. Il serait opportun, pour pouvoir répondre à la demande des éventuels constructeurs, que les bâtiments puissent avoir un côté implanté sur une limite séparative latérale.

**9 - Euskal Elkargoak euskararen eta euskal kulturaren aldeko hizkuntza politikaren eskumena hartzea**

Euskal kultura sustengatzen zuen herriarteko sindikatua desagertu dela eta, Euskal Elkargoak sindikatuaren lekua hartuko luke, «euskararen eta euskal kulturaren aldeko hizkuntza politika» eskumena hartuz. Euskal Elkargoak eskumen horren hartzea onartu du eta, ondotik, haren kide den herri bakoitzak horri buruzko iritzia eman behar izan du. Herriko Kontseiluak Euskal Elkargoak «euskararen eta euskal kulturaren aldeko hizkuntza politika» eskumena hartzearen aldeko iritzia eman du.

**10 - Gai desberdinak**

**Artxibo zerbitzua**

Oroitarazten da Pirinio Atlantikoetako Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak Pirinio Atlantikoetako elkargo guziei Artxibo zerbitzu bat proposatzen diela.

Hiru zerbitzu mota proposatuak dira: elkargoaren artxiboak osoki sailkatzea (1. eginkizuna); langileen formakuntza eta artxiboen sailkatzearen segitzea (2. eginkizuna); masaren ttipitzea eta artxiboen inbentarioa (3. eginkizuna).

Zerbitzu horri kidetzeak duen interesa kontuan harturik, Herriko Kontseiluak erabaki du Pirinio Atlantikoetako Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroko behin behineko Eginkizunen Bulegoko Artxibo zerbitzuari kidetzea, kidetza 2017ko apirilaren 1.ean hasirik, eta Auzapezari hitzarmenaren izenpetzeko baimena eman dio.

**Aktibitate Eremu berria, Mugan eremuaren ondoan**

Hirigintza Tokiko Plana araubidearen aldatzeko eskaera bat beharrezkoa da, UY eremuko 7. artikuluaren aldatzeko. Alabaina, araubidearen arabera, eraikinak funtsen mugetatik gutienez 3 metrotan egin behar dira. Egokia litzateke, eraikitzaileen balizko eskaerei ihardetsi ahal izateko, eraikinen alde bat bazterreko muga batean berean eraiki ahal izatea.

**Passage de la Korrika**

La 20ème korrika (course relais en faveur de la langue basque) passera à AYHERRE le 3 avril prochain. La mairie prendra à sa charge le kilomètre entre « Anttondea » et le panneau de sortie Ayherre en direction d'Isturits. Tous les élus sont invités à y participer.

**Point sur le RPI entre Ayherre et Isturits**

L'Inspection d'Académie, contrairement à sa prévision de fermeture d'un demi-poste bilingue basque et la création d'un demi-poste de « plus de maîtres que de classes » pour la prochaine rentrée scolaire, a annulé ces deux mesures et validé le maintien du demi-poste de basque et ce pour deux ans. Cette décision a été prise suite à la rencontre et aux échanges ayant eu lieu entre l'Inspection d'Académie et les maires d'Ayherre et d'Isturits.

Le Conseil Départemental prendra en charge le transport scolaire entre les deux écoles.

**Korrikaren pasatzea**

20. korrika (euskararen aldeko lasterketa) AIHERRAtik pasatuko da, heldu den apirilaren 3an. Herriko etxeak «Anttondearen» eta, Izturitzeko bidean, Aiherratik ateratzea markatzen duen bide seinalearen arteko kilometroa bere gain hartuko du. Hautetsi guziak parte hartzera gomitatuak dira.

**Aiherraren eta Izturitzeren arteko Herrien arteko Bateratze Pedagogikoari buruzko puntua**

Akademia Ikuskaritzak heldu den eskola sartzeko aipatu zituen euskara irakasle elebidun postu-erdiaren hestea eta «gela baino irakasle gehiagoko» postu-erdiaren sortzea ezeztatu ditu eta euskarazko postu-erdiaren atxikitzea berretsi du, heldu diren bi urteendako. Erabaki hori Akademia Ikuskaritzaren eta Aiherrako eta Izturitzeko auzapezen arteko bilkuraren eta harremanen ondotik hartu du.

Departamendu Kontseiluak bi eskolen arteko eskola garraioa bere gain hartuko du.

-